

IL AZALPEN PROBA • <i>Abbadiaren sekretua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Aitona? Zu zara?

Ahotik belar aletxo gehiago kendu nituen jertsearen maukaz. Nonbaitetik argi pixka bat iristen zela ohartu nintzen. Aitona ikusi nuen erdi-ilunpean, ondoan eserita. Belar dexente zeukan patillatan sartua, eta haiek garbitzen ari zen.

—Ondo al zaude, txiki?

—Baietz uste dut, aitona. Eta zu?

Ez kezkatzeko adierazi zidan keinu batez.

—Zer gertatu da? –galdetu nuen—. Nolatan amaitu dugu zulo honetan?

Aitonak sorbaldak jaso zituen.

—Ez nago ziur. Lurra ireki egin da eta irentsi egin gaitu. Sargune antzeko bat ikusi dut, eta hurbiltzean... Putza. Sagutxo baten modura harrapatu gaituzte.

—Harrapatu? Ez gara erori?

—Zuloa, txirrista, belarra... Prestaturiko tranpa bat da. Norbaitek antolatu du... eta gu barrura.

Amorrua eman zidan, ez nuelako aurretik antzeman. Ezta ezertxo ere. Antton Abbadiak hamar urte baino gehiago eman zituen Afrikan. Antza zenez, nik ez nuen egun bat baino gehiago iraungo antzeko egoera batean. A ze sasi-bidaiari merkea izango nintzen!

—Benetan zaude ondo, aitona?

—Onik eta osorik, baina zure laguntza beharko dut jaikitzeko.

IL AZALPEN PROBA • <i>Abbadiaren sekretua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Leporaino iristen zitzaidan ur zikina zeharkatu nuen beste behin, nazkaz baina irmo. Liburuak hurbilagotik aztertu nahi nituen.

«Liburu jakintsuak...», pentsatu nuen. Liburu haietan egongo zen handik irteteko giltzarria?

—Asko daude, aitona.

—Desberdinen batek egon behar du Zer bait.

—Batzuk oso hizkuntza xeletan daude idatzirik. Ez ditut ulertzen. Izarrei buruzko ugari daude, euskararen ingurukoak...

—Putzu bat, tonto bat eta sei jakintsu –esan zuen aitona, ozen pentsatuz–. Sei, Alar. Ez bat edo bi. Sei.

Liburu sortak zenbatu nituen: hamabi guztira. Eta sorta bakoitzean...? Ordena bat zegoen, lehen begi-kolpean ohartu ez banintzen ere. Sorta guztietan kopuru desberdina zegoen: batean liburu bakarra, bestean bi, hiru, lau... Azkenekoan hamabi.

—Seiko bakarra dago, aitona.

Aitona Danielek ezpainak zimurtu zituen.

—Seikoaren aurrean dagoen palanka –xuxurlatu zuen.

Urak ez zidan erraz mugitzen uzten, baina poliki-poliki sei liburu zituen palankaraino iritsi nintzen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Abbadiaren sekretua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –zure IL lanean bezala–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Aitonak begiak jaso zituen, nire begirada jarraituta.

—Hegaztiren bat?

Berriro egin nuen barre.

—*Hartz Handia*-ren konstelazioa!

Zeruan badira izarrez osaturiko hainbat animalia: arrainak, zezenak, txakurrak, lehoiak, karramarroak... Eta batek baino gehiagok dauka «handi» hitza: «Canis Maior» konstelazioak, adibidez. *Txakur handia*-k. Baina ez da *Hartz Handia* bezain ezaguna denik. *Hartz Handia* zen zeruan ezagutzen nuen animaliarik berebizikoena.

Lasterka joan nintzen teleskopiorantz. Konstelazio bat elefante guztiak baino handiagoa da. Eta Antton ni baino are izar zaleagoa izan zen.

—Zer ikusten da, Alar?

Ondo fokatu nuen teleskopioa. Pozik nengo. Hain pozik.

Konstelazioaren azpian irteera biribil bat zegoen. Ozta-ozta ikusten zen gezi bat zeukan marraztua alboan.

—Aurkitu dugu –esan nion.

Aitonaren eskua sentitu nuen nire ilea nahasten.

—Bikain ari gara, Alar. Batez ere zu. Gure egoera ez da samurra. Bat baino gehiago burua makurtuta egongo litzateke jada, eta negarrez eta kexuka. Zuk argia ikusten duzu gau beltzean –zuzen-zuzen begiratu zidan–. Harro nago zutaz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Abbadiaren sekretua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Gurutzearen alboan, beira ilunezko ontzi bat ikusi genuen.

—Kutxa txiki bat du barruan. Pospolo kutxa da –ireki egin nuen—. Hiru pospolo bakarrik daude.

«Zuzia pizteko», konturatu nintzen.

Lehen pospoloa eskuetan itzali zitzaidan. Aitonak ez zidan ezer esan, baina oso urduri jarri nintzen. Beste bi aukera nituen.

Bigarrengoan kontu handiz aritu nintzen.

—Piztu dut! –atera zitzaidan, suak hartu bezain laster.

Handik oso metro gutxira, sokazko zubi estu eta oker bat azaldu zitzaidan, heldulekurik gabea. Bospasei metroko amildegia beltza zuen inguruan. Azpian, ur korrante zakar eta indartsua entzuten zen. Erabat ezinezkoa zen hura igarotzea argirik gabe. Ezuste latza kanoia hartu bagenu!

Sokak ez zuen oso segurua ematen eta zubia ez zen batere zuzena. Baina suaren argiak asko errazten zuen bidea. Zubia zeharkatu orduko, beste mezu bat aurkitu genuen ate baten gainean:

Azken proba